

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Antirrazismoa: inklusiboak ez garenongan jar dezagun fokua



IRATI TOBAR EGUZKITZA
FEMINISTA ETA
SINDIKALISTA

Arrazista ez izatea eta antirrazista izatea ez dira gauza bera. Hori da sindikatuko kide arrazializatuekin batera ikasitako lehen irakaspena. Antirrazista izateak, arrazakeriak kontzienteki ez errepikatzeaz gain, ahaleginak egin eta arrazakeriaren kontra urrats zehatzak ematera garamatza. Jarrera aktibo bat du bere baitan, arrazializazioan oinarritzen den zapalkuntza sistemari aurre egitekoa.

Gutako bakoitzak leku ezberdinetik eraiki behar duen jarrera aktiboaz ari gara, ez delako berdina zapalkuntzaren subjektu direnen bidea edo pribilegio egoeran gauden zuriona. Bigarren talde honetan kokatzen garenok zainetarinaino dugu sartua supremazia zuria, askotan klasismoarekin batera gure barruetan nahasi eta korapilatzen zaiguna.

LAB sindikatuak apirilean antolatutako sindikatu antirrazista baterantz jaialdian Quinndy Akejuk gidatutako tailer formatiboak asko astindu gintuen, ispiluaren aurrean jarri eta gure praktika pertsonalez hausnarraraziz. Bertan ikasi genuen “zurion hauskortasun” terminoa: arrazak pribilegio-egoeran kokatzen gaituela onarturik, geure kontraesanak kudeatzeko erabiltzen ditugun hainbat eta hainbat argudio; izan ere, norik aitortuko dio bere buruari arrazista izan badela edo bagarela?

Gutasun berri bat eraikitzearen erronka da antirrazista izan nahi dugunona. “Besteak” eta “gu” terminoak baztertzeko ariketa kontzientea izan behar du, “nazio eta herri zapalduko herritarren” iruditegia guztiz eraldatuko duena eta eraldatu behar duena. Zapalduak izanagatik, bertako zuri kaukasoarrak zapaltzaile ere bagarelako askotan, eta

pribilegio-egoeran edo posizioan egon bagaudelako uneoro; pribilegio egoera horrek eskubideak aitortu dizkigu eta aukera gehiago eman. Beraz, gure jarrera, hautu eta praktika pertsonal eta kolektiboak aztertu eta beste dinamika batzuk sortzeaz aritu behar dugu.

Antirrazismoan
aurrera egiteko,
ez dezagun fokua
edo arreta falta
direnengan jarri; jar
dezagun inklusiboak
ez garenongan

Ditudan harreman afektiboak hausnartzera narama beti gaiak: norekin eraiki ditudan harremanak, zein diren lagun sarearen parte; eta noski, zein ez. Izan ere, hutsuneak errealitatearen isla dira eta diagnostiko zehatza ematen digute. Alta, antirrazismoan aurrera egiteko, ez dezagun fokua edo arreta falta direnengan jarri; jar dezagun inklusiboak ez garenongan eta inklusiboak ez diren espazio, komunitate, antolakunde, egitura eta abarretan. Diseinatu ditzagun mekanismo eta tresnak egitura kolektiboak sortzeko, pertsona guztion eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko eta borrokatzeko. Gaia hezkuntzara eramanez, nahasi eta banatu ditzagun zuri autoktonoak; inklusiboak ez garenak hautu horiek hartzen ditugunak baikara. ●